



**Nerea GODOY FUENTES**  
Hezitzailea eta Bizipozako kidea

## Blai, bai!

**E**guzkia, beroa, sargoria. Haurrak izerditan blai da-biltza jolasean, batetik bestera masail gorri-gorriekin. Helduak, garagar-doa eskutan, erretxintzen

hasiak dira dagoeneko, «hau bero naz-kagarria» bezalako esaldiak botaz.

Frustrazioa ez da erraz kudeatzen, are gutxiago 30 gradutik gora dagoenean. Niri, ordea, ez zait bihurrikerietarako gogoia kendu eta ur-pistola txiki batzuk eroatera joatea erabaki dut.

### HONG DENETARIK BAZAR

Dendara sartu eta, aire girotua, haiza gailuak eta beste hamaika tramankulu piztuta, fresko-fresko egoten da. Dendariari «egun on» esan eta pasabide amaiezinetan barrena murgildu naiz, jostailu sorta erraldoi baten artean aukeratzera. 2-3 urteko alaba du ondoan dendariak, hozkailu batean imanak itsasten ari dena. Hogeit bat iman izango ditu lurrean dagoen trapu batean bilduta, eta denak ilaran jarri, kendu eta berriz jarri, hori da jolasa.

### HIZKUNTZAREN JOLASA

Txineraz hitz egin dio amari; amak, gazteleraz, irudiak izendatzeko eskatu dio. Ahoskeran ahalegin berezia eginez, alabak ondo ikas dezan. «*Puppy, el puente, Algorta, la plaza*», hasi da umea. Amak zoriondu egin du, oso ondo esan ditu eta. Ondoren, zenbatzera gonbidatu du haurra eta irribarre zabal batekin, beste iman batzuk hartu eta txineraz zenbatzen hasi dira elkarrekin. Amak txineraz zoriondu du, txaloka eta barrez. «*Ahora euskara*», esan dio helduak orduan, eta iman gehiago atera ditu traputik. Bat, bi, hiru, lau, bost. Oraingoan, haurra izan da txaloka eta saltoka hasi dena, «oso ondo! Oso ondo!» oihukatuz. «*Eso es*», esan dio amak, bezero bati kobratzen zion bitartean.

### HARRO, HERRI, IRRI

Txanponak hartu ditu bueltan adineko emakumeak, haurra begi bistatik galdu gabe. «*Txapeldune* zer zara ba», zoriondu du harro, eta masail bat laztandu dio esku dardartiaz. Umea poz-pozik, ez zegoen dendan irribarretsu ez zegoen inor. Denak harro, denak herri eta denak, irri. Emakumeak poltsatxo zuri batean sartu du erositakoa eta astiro-astiro, bastoia eta hankak koordinatuz, kutxatik ate-



Haur talde bat freskatzeko, udako egun bero batean. Jagoba MANTEROLA | FOKU

rantz abiatu da. Halako batean, haurrak imanetako bat hartu, begiak zabal-zabal ireki eta emakumearen atzetik irten da korrika. «*¡Mira, mira!*».

### HEMEN

Emakumeak, ezti, martxa gelditu eta haurrari parez pare begiratu dio. Eskuetan zekarren imana erakutsi dio orduan, Euskal Herriko maparen forma duen ikurrina da. «*Mira eso, Euskal Herria*», esan dio neskakilak. Hunkitu egin da emakumea, eta barre txiki batek ihes egin dio. «*Hamen* bizi gara gu, gora Euskal Herria!», esan dio bastoia eta poltsa altxatuz. Umea barrezka hasi da, eta agur esan dio andreari, sargoriari aurre egin dion olatu baten parte sentituz. «Agur, agur», esan dio urrundu ahala.

### HAUSNARKETA

Ur-pistolak ordaindu ditut orduan, dendariak barre lotsati batez begiratu dit, haurrari begira-begira nagoelako ni ere. Pistolak iturrian bete eta lagunak bustitzera joan naiz. Haurrak segituan hasi dira korrika, jolasa sortuz. Helduak gehiago zirikatatu behar izan ditut eta azkenean, denak etorri zaizkit atzetik harrapaketan. Jolasean hasi eta azkenean, denak jolasten, ez baitago jolaserako adinik. Hizkuntzarekin ere, antzera. Umea dendako atean dago guri begira, hurbildu naiz eta amaren baimenarekin esan diot: «Ba al zatoz gurekin jolastera?» •